

Alba Fernández Alonso

B maila • 2 aipamena

Kaixo!

Alba Fernández naiz eta Beasainen jaio nintzen 2006ko Maiatzaren 4ean. 14 urte ditut baina aurki 15 beteko ditut. Gurasoekin eta ahizpa zaharrago batekin bizi naiz. Nire denbora librea irakurtzen eta sukaldatzen ematen dut. Asko gozatzen dut liburuak irakurtzean baita plater gozoak prestatzean eta jatean. Musika entzutea ere gustuko dut, batez ere pop motako abestiak badira.



ITZULIKO EZ DEN AROA

Lo goxo batetik esnatu naiz kaiola barruan,
malko gaziak hortz gabeko ahoan dastatuz.
Betiko orduan, hain ezaguna dudan itzal argia dator,
zeruko kotoi koloreko isurkari beroa eskuan duela.

Beso sendoz hartuz, hegaka narama
aireak masail gorrituak laztandu bitartean.
Inguruko begiradak, nire gorputz koskor eta babesgabean.
Arreta guztia bereganatzen dut...aingerutxo bat naiz.

Arrastaka batetik bestera, inguratzen nauena izugarria da.
Besoak eta hankak nekatuta eta ubelduta ditut.
Dena likatsua dago, nork daki zer izango ote den.
Dena ukitzeko beharra sentitzen dut.

Negar malko bat isuri eta mundua dut nire oinetan.
Nola esan nahi dudan guztia jostailuak direla?
Kliska batean, aurreko kaiolan aurkitzen naiz berriro ere.
Begiak astunak sentitzen ditut, lo sakonean erori naiz.